


KONGRESUAREN



Biltzarra

1. Kongresuaren berriak
2. Kongresuaren berriak
3. Kongresuaren berriak

2. BILTZARRERAKO ARAUTEGIA
2.1. BILTZARRERAKO ARAUTEGIA
2.2. BILTZARRERAKO ARAUTEGIA

3. BILTZARRERAKO ARAUTEGIA

Biltzarrerako arautegia



DOKUMENTAZIO ZENTROA

TXT 20124



KONGRESUAREN ARAUDIA (PROPOSAMENA)

1.- KONGRESUA IREKITZEA

Kongresuaren lehendakaritza Idazkaritza Nazionalak eramango du eta honek emango die hasiera ofiziala ihardunaldiei, Gestio Txostenaren eztabaida eta onespena zuzendu eta Kongresuko Mahaiaren hautaketa egingo du.

2.- ARAUDIA ONESTEA

Aldez aurretik Konferentzia Nazionalean onetsi den Araudiaren proposamena aurkeztuko du Idazkaritza Nazionalak, plenarioan eztabaidan jarri eta onetsia izan dadin.

3.-GESTIO TXOSTENA EZTABAITU ETA EBAZTEA

Aldez aurretik ordezkari diren guztiek ezagutzen dutela, egindako Gestioari buruzko Txostena Idazkaritza Nazionalak aurkeztuko du, eztabaidan jarri eta onetsia izan dadin.

4.- MAHAIA HAUTATZEA

Kongresuko Mahaia osatzeko proposamena Idazkaritza Nazionalak egingo du, Araudi honetan jasotzen diren irizpideen arabera.

Mahaia honela osatuko da: pertsona bat Lehendakari eta beste zortzi mahaikide. Hauen artean banatuko dira beharrezkoak diren ardurak (aktak, jarraipen zehatzak, e.a.). Mahaia osatzean, lurralde zein sektoretan orekatua izan dadin ahaleginak egingo dira.

Mahaia euskaraz bakarrik arituko da bere eginkizunak betetzean.

Kongresuko Mahaia hautaturik, Idazkaritza Nazionalak kargu uztea egingo du eta ordezkariaren ardurara nahiz Kongresuaren garapenari buruzko beste kontu guztiak Mahaiak berak hartuko ditu beregain.

5.- PONENTZIA ETA EMENDAKINAK EZTABAIDATU ETA EBAZTEA

Lehen-lehenik, honelakorik balego, osoko emendakinen eztabaida eta ebazpena egingo da.

Emendakinen bat ponentzi taldeek onetsiko balute ere, eztabaidarako metodologia goian azaldutako bera izango da.

Prozedura:

- 1/. Ponentzia aurkeztea
- 2/. Emendakina aurkeztea
- 3/. Ponentzigileen eskuhartzea
- 4/. Eztabaida
- 5/. Emendagileen eskuhartzea
- 6/. Ponentzigileen eskuhartzea
- 7/. Bozketa

Eskuhartzeak zehatzak izan daitezzen zainduko du Mahaiak, aurkezpen luzeeginik gerta ez dadin.

6.- BOZKETAK

Ordezkeri bakoitzak boto bana eramango du eta hau ezingo da delegatu beste inorengan.

Ebazpen edo erabakiak hurrengo eran hartuko dira:

- Estatutuetan xedatutako gehiengo koalifikatuak kontutan hartu behar direnean, botoak zenbatu beharko dira ezinbestez.
- Gehiengo nabarmen gertatzen denean, erabakia onartu egingo da, botoak kontatzen ibili gabe, norbaitek espreski horrela eskatuko ez balu.
- Idazkaritza Nazionalaren hautapena isileko bozketa nominalaren bitartez egingo da.
- Osoko emendakina onetsia izan dadin, bozketan presente dauden ordezkari guztien erdiak gehi baten botoak eduki beharko ditu.

7.- IDAZKARITZA NAZIONALAREN HAUTAKETA

Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalak, arduradun nazionalak (baita herrialdekoek ere) Kongresura aurkezten duten hautagaien zerrendarako proposamena onetsiko du. Batzorde Iraunkor Nazionalak proposamena aurkeztuko dio Idazkaritza Nazionalari, Kongresua hasi baino bi hilabete lehenago, gutxienez.

Kargua uzten duen Idazkaritza Nazionalak zerrenda itxiztat hartu beharko da, gizataldearen harmoniari begira eta bozketan (bertan dauden guztien) gehiengo absolutua ez jasotzekotan bakarrik zabalduko litzateke beste aukera bat: hautagai bakoitza hautatzea, alegia, baldin eta Idazkaritza Nazionalak beste zerrenda oso bat aurkeztu behar duela erabakiko ez balu.

Bozketa banan-bana egiten denean, hautagai guztiek gehiengo absolutua jaso beharko dute. Gehiengo hori hartuko ez balu, beste hautagai bat proposatu beharko litzatzeke.

Zatikako proposamenek osokoa funtsez aldatzen dutela ulertzen bada, Idazkaritza Nazionalari eskumena aitortuko beste hautagai zerrenda bat aurkezteko.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago aurkeztuko balira ere (zerrendak, egituretako organoren batek aurkeztu beharko dituelarik), goian adierazitako prozedura beteko da.

Idazkaritza Nazional berria osatzerakoan, lurralde mailako ordezkariak egiturako dagozkien markoan (Herrialdeko Konferentzian) onetsi beharko dira, Kongresua ireki baino hilabete lehenago.

8.-EBAZPENAK

Sindikatuaren egituretako edozein organok beharrezkotzat jo ditzakeen ebazpenak aurkeztu ahalizango dizkio, idatziz, Kongresuko Mahaiari, beti ere, eztabaidarako ponentzien edukinean eraginik ez dutela izan behar kontutan hartuta.

9.- SAIOETAKO ORDUTEGIA

Apirilaren 19a

- 9,00 Trikitrixak
- 9,30 Idazkaritza Nazionalaren presidentziapean, Biltzarraren zabalpena eta biltzarkide eta gonbidatuei agurra
- 9,40 Presoei omenaldia
- 10,15 Gonbitatutako ordezkariak aurkezpena
- 10,30 Biltzarraren Arautegiaren aurkezpena, debatea eta onarpena
- 11,00 Gestio txostenaren aurkezpena
- 11,30 Gestio txostenaren eztabaida eta onarpena
- 12,30 Biltzarraren Mahaiaren hautapena
- 12,45 2.000 URTERAKO BIDEAN: KOIUNTURA POLITIKO EKONOMIKOAREN GAKOAK ponentziaren aurkezpena
- 13,00 Ponentzia honi aurkezturiko emendakinen eztabaida
- 14,30 Biltzarraldiaren bukaera
- 16,30 Biltzarrari Komunikazioa
- 16,35 2.000 URTERAKO BIDEAN KOIUNTURA POLITIKO EKONOMIKOAREN GAKOAK ponentziari aurkezturiko emendakinen debatearen jarraipena eta bozketa
- 17,30 NAZIOA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN BARNEAN GIZARTEA ALDATZEA ponentziaren aurkezpena
- 17,45 Aipaturiko ponentziari aurkezturiko emendakinen debatea eta bozketa
- 19,00 Atsedenaldia
- 19,30 Biltzarrari komunikazioa
- 19,35 Debatearen jarraipena eta emendakinen bozketa
- 21,00 Idazkaritza Nazionalerako hautagaiak aurkezteko epearen bukaera
- Biltzarraldiaren amaiera

Apiriliaren 20a

- 9,00 OSOTASUNEAN ARITZEKO ERAKUNDE EFIKAZA BEHAR ponentziaren aurkezpena

- 9,15 Aipaturiko ponentziari aurkezturiko emendakinen debate eta bozketa
- 11,30 Atsedenaldia
- 12,00 Biltzarrari komunikazioa
- 12,05 Debatearen jarraipena eta emendakinen bozketa
- 13,30 Idazkaritza Nazionalaren hautaketa
- 14,30 Biltzarraldiaren bukaera

10.- BUKAERA EKITALDIA

- 16,30 Trikitrixak
- 16,57 PIT-CNT (URUGUAY)ren hitzartzea
- 17,06 CTC (CUBA)ren hitzartzea
- 17,15 CSI, SU, FTC, CUT, eta CSI Asturias-en ordezkaritza hitzartzea
- 17,24 STC (CORSICA)ren hitzartzea
- 17,33 UGT-SARIO (ARABIA ERREPUBLICA SAHARAUIAR DEMOKRATIKOA)ren hitzartzea
- 17,42 CIG (GALIZA)ren hitzartzea
- 17,51 Intersindical Canariaren hitzartzea
- 18,00 ELAren hitzartzea
- 18,15 Jarrairen hitzartzea
- 18,25 HBren hitzartzea
- 18,35 Telegrama eta jasotako agurren irakurketa
- 18,50 Idazkaritza Nazionalaren aurkezpena
- 19,00 Idazkari Orokorraren hitzartzea
- 19,30 Biltzarraren bukaera